

Nafarkaria

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1995eko apirilaren 7a / VI. urtea / 173. zenbakia

Tangoaren antologia

Lehen Mundu Gerra iragan berria, 30eko urteetako beherakada ekonomiko izugarriaren atarian, argentinar dotore batek mundua alaitu eta tangoa unibertsalizatu egin zuen. Toulousen jaioa baina Buenos Airesko auzo pobreetan hazia zen Carlos Gardel pertsonalitatea eman zion emigranteekin batera sortu zen musika sentikor eta laketgarririk horri, eta bera izan zen urte haietan Europako izar handienetakoa, Ameriketako zinemako izen hasi berriei itzal egiteko kapaza.

Berak utzi zuen haziak loreak eman zituen mundu osoan, eta dantza talde eta musikari frankok heldu zioten musika horri han eta hemen. Orain, Euskal Herrian bada talde bat hori guztia berreskuratu eta musika mota hori zabaldu nahi duena: Los Morachos talde nafarra. Gaur eskainiko dute Iruñean 'Recuerdo malevo' deritzon kontzertua, tangoaren urte garrantzitsuenen antologia izango dena.



Non paratuko dute Leizarragaren ditxosozko Biblia? Ditxosozko Biblia hori Convergencia Navarra Democraticarentzat hauteskuntarako pasaporte ote da? Zer esan nahi du Allik Biblia hori erosi izanak? Euskararen alde dagoela Alli? Frogatu ote du hori poterean egon den bitartean? edo frogatu duelakoz, bere neurrian, osatu behar izan du Convergencia Democraticoa delakoa? vascuencea Bibliaren antzekoa da Nafarroan? non gordeko dute? aurrera goaz? atzera goaz? partidu abertzalek zer eskainiko digute euskararekiko hauteskuntdeei begira? EA-k agertuko du fundamentuzko jarrera bat euskararekiko? Izanen ote da gai HB euskara bere estrategiaren gaitetik paratzeko? Nola lortu euskara partidu ez-abertzaleena ere izatea? afera ala xarma? Sanz-ek Alliren jarrera malgu eta batzu-

tan zuria erakutsiko ote du? Zein eredu ditu Euskaldun berri batek Nafarroan? baseritarkeriaren ereduaren eta abertzalearen artean aukeratu beharra ote du oraindik orain? UPNA-an euskararen eguna egiten denean zergatik janzten dira 'kaseroz' eta 'kaseraz'? Zer adierazi nahi dute horrekin? bizitza arruntean bestela janzten bagara ere, horrela jantzita ibiltzen garela barnetik? euskaldun batek, Oteizak esan duen bezala, frontoi huts bat ote du bihotzean? frontoi huts batean ari den bertsolaria ote da euskalduna? 'bizitzaren sentimendu tragikoa' gure ezaugarria ote da? gurea epika da? eta lirika, zer egin lirikarekin? Kitsch-a ote da

Etxearen geografia

JUANJO OLASAGARRE



kultura bat hiltzorian dagoenean gelditzen zaion azkeneko aztarna? noraino gara euskaldunok gerori izan nahiean gure aitona-amonen parodia hitsa? gure umeak, gabonetan esaterako, 'kaseraz' eta 'kaseroz' janzten ditugunean, ohartzin ote gara Sevillako gurasoek Aste Santuan beren umeak 'andaluzez' janzten dituztenean bezala ari garela? Zergatik ote da horrelako egiteen arrazoia Salbazio Kultural Nazioanala gurean eta besteengan 'horterada' eta folklorekeria? zergatik aritu behar ote dugu beti negarrez? Gure egoera tamalgarririk delako, akaso? 'Gure' horrek esistitzen ote du ala ergelak engainatzeko ilusio faltsu baino ez

da? Biblia erosi izana euskaldunok engainatzeko trikimailua ote? Akabatuko ote dugu behingoan? Non paratuko dute ditxosozko Biblia? bere aldamenen paratuko dute azken euskaldun fosilizatua?

Poeta espainiar ingeleszale batek zioen ezin dela nazioaren nahasmendua areagotu egunkarrietan sasiprosa poetikoa erabiliz, prosaren funtzionalizatea berezkoa izateaz gain funtsezkoa ere badela. Nago ez ote naizen neroni aritu nahasmendu hori nahasten zutabe honetan, gainera galdera gehiegi plazaratu ditut, herri honek? (herri? probintzia? komunitate? entelekia?) erantzunak beharrezko dituen une hauetan. Beraz agur irakurle eta gogoratu zuri suertatzen bazaizu azken Fidela Bernat hori izatea, irrifar egin behar duzula, irrifar, osti txarra ez baita 'demokratikoa'.

Bibliaren galderak

MUSIKA

Mikel Laboa abeslari ospetsuak kontzertua eskainiko du gaur arratsaldean Iruñean, Udalak antolatuta duen 'Bedatseko Giroa' programazioaren barruan. Gaiarren Antzokian izanen da, 20.00etatik aurrera, eta sarrerak bi prezio ezberdinetan salduko dituzte: 1000 pezeta butakan eta 600 pezeta anfiteatroan.

Batzango Musika kontzertuan entzuteko aukera izango da gaur ostirala, apirilak 7, Elizondoko Abesbatzaren eskutik. Batzango Euskalkia Musikan izenburupean, arratsaldeko 8.00etan hasiko da, Arizkunenea Kultur Etxean.

IBILBIDEAK

Gasteiztik Iruñerako mendi zeharkaldia antolatu dute Bagare Kultur Tokiak eta Zaldiko Maldiko Elkartek Aste Santurako. Apirilaren 13tik 17ra izanen da eta ibilbidea Urbasa, Entzia eta Andia mendilerroetatik doa, ikuspegi ederrak eta baso ikusgarriak zeharkatuz. Laguntzarako furgoneta izanen da eta pentsaturiko gastuak 15.000 pezetakoak dira, gutxi gora behera.

Zalduendotik abiatuak Aitzgorri mendia igo eta Arantzazuraino doan ibilbidea antolatu du igande honetarako, apirilak 9, Nafarroa Kirol Elkartek. Parte hartu nahi duenak Elkarteko egoitzara joan (Jarauta, 78) edo 22 43 24 telefonora dei dezake.

BESTELAKOAK

Jus la Rocha antzerki taldeak 'Motin de brujas' izeneko lana taularatuko du gaur ostirala, apirilak 7, Atarrabiako Udal zinemaren. Udalak eta Irati Elkartek antolatuta duen 'Udaberria eta Emakumea' zikloaren barruan, arratsaldeko 6.00etan hasiko da.

Zinema Mexikarra zikloaren barruan 'Cinco semanas en globo' izenburuko pelikula botako dute heldu den asteartean, hilak 11, Iruñeko Olite zinemaren. Nafar Ateneoak antolatutako, arratsaldeko 8.00etan hasiko da. Sarrerak 350 pezetan salduko dituzte.

'Leitzako Historiaz kontu kontari' izenburupean solasaldia izanen da gaur arratsaldeko 7.30etan Leitzako udaletxean. IKAK eta bertako Euskara Zerbitzuak antolatutako, bertan Patxi Zabaleta HBko parlamentaria eta Patziku Perurena idazlea izanen dira, besteak beste.

NAFAR KRONIKA

GAIZKA ARANGUREN

Korrika, sexua eta kartzela. Kartzelan sexua korrika

Agur t'erdia 'asteko kronika' honen irakurleei Iruñeko espetxeko 'ikasgelatik'. Joan den astean onartu zuten ordenagailua erabil nezakeela kartzela barruan; beti ere, Tesi Doktorala egiten ari naizelako. Juan Kruz Lakasta, Nafarkaria honetako bertze kazetari eta intsumitu presoak ez du orain arte bai menik ukan. Eta ordinatorea eskutan, espetxeko egoeraren berri eman nahi nizuke barrutik egin dudan lehen zutabetxo honetan.

Donibane-Garazin abiatu zen korrika lehengo ostiralean. Lehengo kilometroko argazkian garaztar ezagunak ageri ziren; beti tinko dabiltzan horietakoak. Haien argazkia ziegan itsatsi ondoren ekin genion Korrika penitentiarioa prestatzeari. Lekukoa aspaldi genuen egina, eta azken egunetan sartu ahal izan zizkiguten dortsalak lagunduta dena txukun zen patioari 10 bira emateko. Baina... intsumitu talde txiki batek eta preso politikoez osatutako ordezkariak batek soilik egin zuen korrika. Gainontzekoak zigortuta, isolatuta ginen ziegetan.

Harresien kanpokaldetik gazteen moduluaren patioa zoto euria hasi zen orduan. Dozena pare bat zoto ardo. Kartzelariak intsumituen gibeletik korrika zebiltzan, hauek zotoak urdailan husten saiatzen ziren bitartean. Korrika ederra hori



Ziegetan binaka garenez, ez dugu intimitaterako minutu bakar bat ere. Hartaz, isolamendu asteburua une egokia da norberaren behar sexualei bide emateko. Harreman heterosexualei atxikituak gaude nontzat, isolamendu ordu luzeak jasangarriagoak dira ametsetako kanpaiari joaz. Aldizkari kilikagarriak ez dira falta; batez ere komikiak (hala ere, inork horrelakorik oparitzeko aukera badu, milesker). Autozerbitzuaren orgasmoak! Harresi hauen artean ezinbertzekoak. Izan ere, hilean behin neska-laguna edo mutil-lagunarekin jolasteko parada egon arren (vis a vis), ez da joko sexualetarako denbora eta leku egokiena. Hiru ordu dira. Gurasoak, arreba eta neska-laguna. Ordu t'erdia pasa eta...

nola erran amari, bere sentsibilitate mindu gabe, lagunarekin bakarrik gelditu nahi duzula? Arrebari bi keinu egin, bon! irmoa ahozkatu, lagunaren eskua laztandu... bai... ohartu da... Badoaz!

Ordu t'erdia. Hori da presoak eta lagunak duten denbora.

Korrika, Sexua, Kartzela. Kartzelan, sexua korrika.

AHAZTU GABE!

IKASTAROAK



Ortzadartalde iruindarrak kultura tradizionalari buruzko VIII. Gai Bakarrekoko Ikastaroak antolatu ditu, urtero bezala. Aurtengoan Ezpatadantzak izango da protagonista. Ikastaroa, beraz, oro har dantzan interesaturiko guztiei eta bereziki folklore taldeetako partaideei dago zuzenduta.

Ezpatadantzaren inguruko ikastaro honek hamar klase izango ditu; dantzariaren prestakuntza fisiko eta teknikoari eta Iztuetaren Ezpatadantzak eta Brokel-dantzari buruzkoak. Apirila osoan zehar izango dira aipatu klaseak, osotara 33 ordu. Irakasleak, berriz, Xabier Urresti eta Xabier Ezkurra izango dira, Donostiako Goizaldi taldeko dantza maixu ohiak. Xabier Urreistik, hain zuzen ere, badu esperientzia luzea dantzaren munduan, iaz urtebete aritu zelako Urbeltzek prestaturiko muntaiarekin. Argibide gehiago nahi duenak Ortzadar taldearengana jotzea besterik ez du: Descalzos kalea, 65 (22 31 07)

ASTEKO PERTSONAIAK



Estitxu Arozena
Bertsolaria



Fermin Ezkurra
Osasunako presidente ohi

Txapelketa nagusi batean irabaztea lortzen duen lehen emakumezkoa da Estitxu Arozena lesakar gaztea. Ez da, ez, marka txarra, are gehiago hiru urtez txapeldun izan den aitaren aurretik geratu dela kontuan hartuz. Nafarroako Bertsolari Txapelketa irabazteak poztasun handia ematen diola adierazi zuen Estitxuk, eta txapela «gutxien hutsegina duenarentzat izan» dela. Hogei urte besterik ez ditu, baina dagoeneko lortu du garaipen handi bat. Denetara 757,5 puntu lortu zituen, aitzak baino lau t'erdia gehiago, bertso politik eta ongi eginak kantatuz. Erregularitasunez aritu da txapelketa osoan eta horrek eman dio txapela, urduri samar ibili bada ere, merezitakoa.

Ongi merezitako omenaldia egingo diote gaur Fermin Ezkurra Osasunako presidente ohiari. Oriainen jaiak orain dela 73 urte, 1.970ean izendatu zuten Nafarroako futbol talde nagusiko presidente, eta kargu horretan jarraian 21 urte egin zituen. Horretaz gain, 47 urte aritu da Iruñeko Aurrezki Kutxa Munizipalean lanean, zuzendari ere bai hainbat urte. Beste batzuekin batera izan zen Futboleko Liga Profesionalaren sorreran eta Komite Exekutiboan ere parte hartu zuen. Lan izugarria egin du kirol munduan, aditu guztiek aitortu dutenez, eta orain omenaldia dator, ohizkoa izaten denez. Horretarako futbol munduko hainbat pertsona bilduko dira Iruñean eta Udalak ere bere omenalditxo egingo dio.

ADI!

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.4

Egunero, astelehenetik ostiralerara, 'Zokobetailu' goizeko 10.00etatik 11.00etara.

XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etatik 22.00etara... 'Karakola segi hola' gazteendako saioa.

ARALAR IRRATIA FM 106.2

Astean zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarriketak.

KARRAPE IRRATIA FM 107.8

Astean zehar, 12.20etatik 12.35etara 'Gauza guztien gainetik' edertasuna eta osasuna, sukaldaritza, ohiturak...

Iruñea-Aiziritze

Haur kantari txapelketen finalak

E. D. DE U./LF / IRUÑEA/BAIONA

«Hara, hango hura, ezkerreko iskinean dagoena, huraxe ene iloba da». Horixe erranen dio izeba musugorriak aldamenen egokitu zaion gizonari, igandeko gona dotorea bere pisuaren pean zalpalduta, zimurtuta, duela. Berdin dio. Iloba kuttuna ari da kantari, non eta Gaiarre antzokian, Nafarroako Haur Kantari Txapelketaren Saio Nagusian, eta, Leireren hizketa ulergaitz gertatzen baldin bazaio ere, aingerutxoaren ahotsa xarmangarria da. Finean, esku zarta azkarrak onspena emanen diote kantariari.

Gauza hori gertatuko da, hamaka aldiz errepikatuta, datorren igande honetan, apirilak 9, Iruñeko Gaiarren antzokian, goizeko 11etatik aitzinera. Orain artean bi kanporaketa saio burutu dira, igandean finala, eta saio nagusi horretatik Euskal Herriko Final handian ariko diren nafar ordezkariak aterako dira, epaimahaiak deliberratu hiru eta laugarrena entzuleek erabakita. Horretarako, entzuleak botoa eman ahal izanen du, sarreraren gibelaldean partehartzaile baten izena idatziaz. Gero bozkatu, zenbatu eta boto gehien eskuratu duen horrexek hartuko du txartela Euskal Herrikoan kantatze-ko.

Epaimahaiak lau lagun izanen ditugu. Horiatarik hiru kanporaketa saioetan ibili dira: Koldo Pastor musikaria, Fermin Iriarte abesbatza zuzendaria eta Mikel Juanitz musikaria. Hauekin batera Maite Idirin Lapurdin bizi den kantari eta musikazale ezaguna jarriko da, eta hainbat gauza izanen dituzte kontutan puntuazioa ematerakoan: trebetasuna, ahotsa, kantuaren ekarpena eta bertze.

Kantariak banaka, binaka edo taldeka ariko dira, haur eta gaztetxoan mailan, 22 denetera, gure herrialdeko anitz lekutatik etorritakoak. Ondoko hauek dira eta azalduko ordenean abestuko dute: Berako Labiaga ikastolako Ttipitarri taldea; Lekunberriko Lorea eta Nerea; Paz de Zigandako Piperminak taldea; Iruztungo Ziripot taldea; Jaso ikastolako Maite eta Miren; Lesakako Tantirumairu taldea; Ultzamako Belate San Julian bakarlaria; Lekunberriko Gabai taldea; Altsasuko Katakax taldea; San Fermin ikastolako Haizea bikotea; Lizarrako ikastolako Koblakariak taldea; Elizondoko ikastolako Bi baztandar bikotea; Paz de Ziganda ikastolako Txepetak taldea; San Fermingo Maitzi bikotea; Lekunberriko Aralarko Kantariak taldea; Be-



Nafarroako bi finalak egingo dira heldu diren egunotan.

rako Jesusen Bihotza ikastetxeko Estibalitz Agirre bakarlaria; Jaso ikastolako Pailazo Barregarriak taldea; Amaiur Udak ikastolako Haizea eta Maitane bikotea; Goizetako Patxi bakarlaria; Berako Labiaga ikastolako Attonarri taldea; San Fermin ikastolako Txindor taldea eta Berako Jesusen Bihotza ikastetxeko Ereñzu taldea.

AIZIRITZEN NAFARROA BEHEREKOAK

Aiziritzeko gela berria jendez mukurru bete zen iragan da igandean Nafarroa Behereko Haur Kantu Txapelketaren finalerdiarentzat. Pantxika Maitia eta Mattin Hiri-goienek aurkezturik, ekitaldia arratsaldeko ordu bi terdian abiatu zen eta Amikuzeko ikastolako tipiek ohore zuten entzungarria abiatzeko. Kantuz kantu, kreazio edo kantu xaharrak emanaz, taula gainetik pasatu diren 200 kantari eta musikariek xoratu zituzten ehunka bildutako entzuleak. Azpimarratu behar da herri kantuak edo ezagunak zirela gehienak, nahiz eta kreazio batzuk entzuteko parada izan zen, hala nola Jean Pujo Baigorriko eskolako Nerminen lagunek eman zuten 'Tzinbi Tzanba'. Bertso zahar zenbait edo agertu gabeen gelditu ziren kantuak ere eskaini zituzten talde batzuek, Iguzki liliak taldeak Labeguerieren 'Oto Zaharra' eman zuten gisan.

Basaurin ekainaren 17an iraganen den final nagusian Nafarroa Behereko ordezkarien hautatzeko epaimahaiak osatu zuten tokiko lagunekin, eta finalean parte hartuko dute 6 eta 9 urte artekoetan Sabina Castellonek 'Mundu zabalderako' kantuarekin, Extebe Sallatok 'Lau Teila-

tu' Itoizen kantu ezagunarekin, Maialen Mendiboure eta Extebe Sallato bikoteak 'Brodutzen ari nintzen' kantuarekin eta Jean Pujo kolejioko Nerminen lagunek 'Tzinbi Tzanba' kreazioarekin.

Basauriko finalerako txartelak emateaz gain, beste kantari franko sariztatu zuen epaimahaiak. Sei eta bederatzirte artekoetan saria eman zien Oztibarreko ikastolako Peio Sarraude

eta Iban Erdozainzi-ri, 'Maritxu nora zoaz' manera franko pollit batez eman baituzten. Kantu aberastasuna edo kreazio hoberearen saria eman zieten Jean Pujo kolejioko ikasleak. Taula gaineko joko hoberearentzat Oztibarre ikastolako bikote gaztea sariztatu zuten eta ahots ederrearen saria eman zioten Florence Ruitz garaztarrari. Entzuleek beren gustuko kantaria bozkatu zuten Extebe Sallato.

Basaburua

Satrustegi Beramendin gaur Kultur Hilabetearen barruan

P. U. / IRUÑEA

Jose Maria Satrustegi Euskaltzaindiko idazkariak gaur eskainiko duen hitzaldiarekin —'Euskal ohiturak: ihauteriak, San Juan suak, maiatza, elorriak etxeko ateetan'— hartuko du abiadura apirilean zehar Irkaitz gazte taldeak antolatutako duen Basaburuko Kultur Hilabeteak. Hasiera, hala ere, joan den igandean izan zen, Berueten izan zen Adinduen Egunarekin. Satrustegiren hitzaldia Beramendin izanen da, arratsaldeko 8etatik aurrera.

Ekitaldiak apirilean zehar izanen dira, nahiz eta aurreko bi urteetan maiatzean egin diren. Bi helburu kontuan hartu dira egitaraua prestatzerakoan: batetik, herrietako jendeak gogoko izan ditzakeen ekintzetara biltzea, eta bestetik antolaturiko ekitaldien bidez euskara eta euskal kultura indartzen eta berpizten saiatzea.

Igandean, horrela, haur eguna izango da Oroketan, eta arratsaldeko 4etatik aurrera jokoak izango dira. Ondoren Azkona Taldearen emankizuna. Apirilaren 22an, larunbata, Herrantz Urtasun ariko da euskararen gainean 'Euskararen egoera aztertuz' izeneko mintzaldiarekin. Arratsaldeko 8etan izango da, Jauntsaratsen. Hurrengo egunean, goizeko 11etan, herri kirolak izango dira Arraratsen: aizkora apustuak, artisauak, gazta dastaketa...

Apirilaren 29an bertso afaria izango da Itsason, gaueko 10etatik aurrera, eta apirilaren 30erako ibilaldia prestatu du gazte taldeak Basaburuko mendietan zehar. Goizeko 9etan abiatuko da txangoa. Bukatzeko, maiatzaren 6an gaupasa izango da Elurte taldearekin, nahiz eta tokia oraindik zehazteko dagoen.

Lesaka

III. Herri Lasterketa igandean korrikalari famatuenekin

LESAKA

III. Herri Lasterketa jokatu da iganden honetan herrian, Batzoki Elkarteak antolatuta eta euskal korrikalari famatuenekin partaidetzarekin. Kategoria guztietan dago parte hartzeko aukera, eta froga nagusia, seniorrena alegia, 12.30etan hasiko da.

Bi ibilbide izango dira: 500 metroko bat, eta 2.000koa bestea. Lehendabizikoan benjaminak, alebinak eta infantilak ariko dira, eta bigarrenen gainontzeko kategoria guztiak. Helduek, kasurako, lau itzuli eman behar dizkiote ibilbideari: zortzi kilometro, alegia. Parte hartzea dohainik izango da, eta partaide bakoitzak oroigarri bat —kamiseta bat— eskuratu du. Izena lasterketa hasi baino ordu terdi lehenago ematen ahal da, eta lasterketa bukatu eta berehala sarien banaketa egingo da.

Batzoki Elkarteak laguntza ugari izan du lasterketa honen antolakuntza lanetarako; Lesakako Udalak eta bertako banketxe batek ezezik, herriko taberna, banketxe, denda eta enpresek eman dirulaguntzak ere lasterketaren arrakasta ziurtatu dute. Frogaren ezaugarriak herri lasterketa batenak dira: herri barnean burutuko da, bidea asfaltatuta egonen da eta maldarik gabekoa izanen da. Lasterkariarentzat berotzeko toki bat, aldatzeko gelak eta dutxak atondu dira.

Partaidetza ziurtatu dutenen artean azpimarratzekoak dira hainbat izen: Gabriel Garin gipuzkoarra, Euskadiko Kros txapelketako txapeldunordea; Andres Martinez korrikalari nafarra, gure lurraldeko inoizko onena; Joseba Sarriegi, 3.000 metro oztopotundetan Gipuzkoako errekorra duena; Karlos Bengoetxea, 1.500 metroetan Gipuzkoako txapelduna; Oskar Iriarte, 5.000 metroetan Euskadiko txapelduna eta Nafarroako krosetako txapeldunordea; Rafa Maritxalar, Nafarroako atletismoaren barnean etorkizun apartekoa duen korrikalaria; Juan Zubieta, Nafarroako maratoi errekoraren jabea; eta Maika Ariztegi, Nafarroako kros txapelduna. Lerro hauek idazterakoan ez zen ziurtatua aterako ote diren —besteak beste— Alfonso Fabo (800 metroetan Euskadiko txapelduna), Iñaki Gebrero (800 metroetan Gipuzkoako txapelduna), Ricardo Toro (bost aldiz Sarako kontrabandista lasterketa irabazi duena eta ehun kilometro lasterketak burutzeagatik ezaguna) eta Rosi Talavera (maratoi lasterketetan Euskadiko onenarietarikoa).



Gaurko emanaldian mende hasierako giroa gogorarazi nahi du Los Morochos taldeak, eta eszena-tokia horretarako prestatuta dago.
IRINTA

ALBERTO BARANDIARAN / IRUÑEA

Buenos Airesko (Argentina) portua ametsetako helmuga zen garai haietan. Milaka kilometro koadroko etxaldeak, mugarik gabeko lurraldeak, oparotasuna, aberastasuna haien guztien atzetik... Amerikak, finean. Joan den mendearen bukaeran Rio de la Platako zona osoa —Montevideo barne— munduko emigrante guztiak asegabe irensten zituen aho izugarria zen, abegi bukazezina eskaintzen zien altzo erraldoia. Bertara abiatu ziren latinoak, euskaldunak, galiziarrek, frantziarrak, eta bertan nahastu ziren kultura guztiak. Toki aparta zen nahasketa kulturalerako, eta bereziki musikarako. Hor sortu zen tangoa.

Orain, ia ehun urte geroago, mundu osoan ezagunak dira Toulousen (Frantzia) jaiotako

Ai, Buenos Aires maitea!

Tangoaren antologiari buruz emanaldia prestatu du Los Morochos-ek

Ruerdo Malevo' izeneko ikuskizuna aurkeztuko du gaur, ostirala, Iruñeko Nafarroako Antzerki Eskolan, Los Morochos taldeak. Tango argentinarraren antologia dei genezake hango dantza bikote batekin restatu duten ikuskizuna, beren asmoa mende hasieratik 1940ra bitarteko tangoaren historia aurkeztea baita. Hori baino gehiago ere bada 1993an sortu zen talde honen asmoa: Euskal Herri osora zabaltzea emigranteengandik jaio eta Carlos Gardel unibertsal egin zuen musika hau.

Carlos Gardel paregabearen grabazioak eta, egun, bere irudia oraindik ere *bonaerense* tipikoarena da. Gardenegiak, alabaina, hitzak, sentikorregiak espresioak, beroegiak musikak, lurralde batekoak bakarrik izateko.

Egun —Europar bereziki—, tangoak nonahi pizten ditu pasioak eta «mende honetan ezagutu den dantzarik sujerente eta laketgarrienaren» korapilo sekretuak askatzen irakasten da dantza eskola gehienetan. Baita Euskal Herrian ere. Iruñean gaur estreinatuko den ekitaldia tangoaren historiari erreposoa egiteko pentsatuta dago, portu inguruko tabernetan sortu zenetik Gardelek Parisen famatu zuen arte.

Los Morochos taldea 1993an osatu zuten Norberto Viñasek eta Gabriel Sareskyk. Lehendabizi-



Los Morochos eta Marcela eta Ricardo dantzariak.

IRINTA

kakoa. 1928an, Parisen egin zuen debuta Gardelek, eta Europako goi mailako gizarteak bereganatu zuen, garaiko artista handien gisa. Horrek berehala piztu zuen Argentinako dirudunengan interesa, eta tangoa bertako musika nazional bihurtuko zen. Gardel izan baitzen, izan ere, musika honen arima eta bihotza.

Jatorria Rio de la Platako itsasertzean izan zuen, Montevideo eta Buenos Airesko metropoliak biltzen dituen kostan eta bertara heldu ziren kulturen arteko nahasketatik sortu zen. XVIII eta XIX. mendean, Andaluziako hotsak ziren inguruan, eta habanerak, eta bertako gaiak —kroalak—, eta... Emigranteek beren musikak ekarri zituzten, eta bandonoarekin bertako musikak baztertu zituzten portutik. Or-

Gardelekin, eta bereziki musikari —tangoari— hitza jarri zionetik, tangoa portutik atera zen, eta Buenos Aires eta Argentina osora zabaltzen. Europara —Madrilera eta Bartzelonara— 1925ean egin zituen lehen bisitaldiekin erdi mailako gizarte argentinarra ezagutzen hasi zen musika, eta Parisen 1928an izan zuen arrakastaren ondotik Gardel musikari nazionaltzat hartu zuten. Orditik aurrera azaldu ziren interprete asko eta onak. Musikak ere garapena izan zuen, partiturak azaldu zirelako, eta hasierako gitarra joleei orkestra osoak gehitu zitzaizkielako batzuetan.

60ko urteetan, ordea, eten garrantzitsua izan zuen tangoak, eta grabaketak gero eta urriagoak egin ziren. Ricardo Auzmendi-
ren iritzi, garai haietan bata bes-

Portutik Parisera


A. B. / IRUÑEA

Bi urte funtsezkoak dira tangoaren historian, biak Carlos Gardelekin zuzenki lotuak: 1917a eta 1928a. Europa Lehen Mundu Gerran murgildurik zegoen garai hartan abestu zuen lehendabiziko aldiz Gardelek tangoa, musika hau izango zenaren oinarria ezarri, 'Mi noche triste' ('Ene gau tristea') abestiaren bertsioarekin. Hortik aurrera, tangoa izango zen; anzinako guztia bilakaera, nahasketak, ereduaren ibilera itsuetara ziraldotik.

duan azaltzen da tangoa, baina dantzatua, ez baitzen abesten. Behe mailako jendearen musika zen, nahasia eta pertsonalitate zehaztu gabekoa artean. Musikari anitz ibiliagatik, ez zuten ezer utzi hurrengoendako, eta partiturak eta hitzak urriak dira oso.

tearen atzetik agintea eskuratu zuten diktadorek zeresanik izan zuten etenaldi hauetan. «Ingeles musika bultatu zen orduan, ingelesa ez zelako ulertzen. Tangoa kaleko musika da, herritarra, eta ez zen propaganda ona diktadurarentzat». Orduko musikari onenak isilarazi zituzten, eta ez zen tangoaren garapenik izan.

Klandestinitateko emaitzak, ordea, demokraziarekin ezagutzen hasi ziren eta beraien dira gaur egungo tangoaren izarrak.



Norberto Viñas abeslaria, ekitaldi batean. IRINTA

mentzen dena ahotsa baita. Falta dute, ordea, *bandoneo* deritzon akordeoi kromatikoa, Gardelen zenbait kantutan hain esanguratsua den soinu zartatua. Aukera kontua hau ere. «Alde batetik, oso teknika konplikatu dauka» azaldu du Sareskyk, «eta hemen ez dago jenderik horretarako eta, bestalderetik, guk egiten dugunarako ez da erabat beharrezkoa».

Abeslariak eta bi gitarrez gain, dantzari bikote bat ere ariko da eszenatokiaren gainean. Marcela eta Ricardo senar-emazte argentinarrak aski ezagunak dira eta ikuskizunaren alde horren arduraduna dute. Biak ere Rio de la Platako herbeherean jaiota, tangoak dantzatzen lortu duten estilo pertsonalak famatu egin ditu han eta hemen.

Bi dantzari hauek duela bost urte heldu ziren gure artera, Euskal Herria osoan zehar eman zituzten emanaldien bidez. 1991n Argentinak Madril duen enbaxadak saritu egin zituen, egiten zuten lanak 'interes kulturala' zuelakoan, eta Madril zenbait urte bizi eta gero, Nafarroa aukeratu dute laketzeko lurralde. Klaseak emateaz gain, ikuskizunetan parte hartzen dute, hau lekuko, «besarkatuta egiten den dantza bakarra» zabaltzeko.

Denek garbi dute tangoak baduela etorkizuna, emanaldi hutsak baino zerbait gehiago egin daitekeela. «Guk, Los Morochos taldeak, 50 emanaldi inguru egin genuen iaz» dio Norbertok, «eta dagoen ukitu exotikoa baztertu gabe, jendeari, berez, gustatu egiten zaiola sumatu dugu. Bere magiak, bere erakargarritasunak, atxikitzen du jendea. Gakoa kantatzeko erabiltzen den izpiritu da, maitasun kopurua». Taldeak dagoeneko maketa bat grabatu du, gaur salgai paratuko dena, eta bertako abesti gehienak bertsioak badira ere, ez dute bazter utzi konposizioa, jada zenbait lan osatutakoak badituzte eta. Halaber, dena hori bakarrik izan ez dadin, ekainean tangoari buruzko jardunaldi batzuk antolatu behar dituzte Lizarran.

koari, bilbotarra jaiotzez, familiaren bidez heldu zitzaion tangoaren ezagutza, aita zaletu amorratua izanik betidanik entzun zuelako etxean konpasen doinu ahantzezina. Kostata heldu zen, baina, doinu ezaguna erreparorik gabe atxikitzen. Hasieran zenbait rock taldetan sartuta, argitalpen frankotan plazaratu zuen bere sormen literarioa, eta 1988an hasi zuen gaur egun garatzen ari den arlo artistikoa, bakarkako emanaldiak ematen. Duela bi urte, Saresky ezagututa, osatu zuen taldea eta bere ibilaldi profesionalari ekin zion. Gabriel Saresky gitarra jolea Buenos Airesen jaio zen 1957. urtean eta bertan emandako urteetan musika klasikoa ikasi zuen bereziki. Europan jada, 1977tik aurrera tangoa eta musika garaikideari lotu zitzaion, eta 1984tik aurrera Lizarran bizi da. Luis Jose Chaves 'Piti' izan da taldearen azken fitxaketa. Arras ezaguna Nafarroan 'Malos tratos' taldearekin egindako lanarengatik, iazko hasieran hasi zen taldearekin. Denek dute berebiziko atxikimendua tangoarekin. «Gustukoa dugu oso, bestela ezingo genuke hau egin».

'Recuerdo Malevo' ordu erdiko ekitaldia da, eta nola dekoratu eta jantziengatik hala aukeraturako abestiengatik tango klasikoa berreskuratzeko lana dela esan daiteke. Izan ere, kantu guztiak 1940 baino lehenagoak dira. Kantu klasikoak, berez, eta ezagun askoak gehienak, grabazio zahar gehienetan azaltzen baitira.

Horretarako interpretazio lan gogorra egin behar izan dute taldekoek, partitura gutxi direlako alde batetik, eta grabazioetatik ezin delako akorde guztiak atera bestetik. «Askotan asmatu egin behar dira akordeak» dio Sareskyk, «melodia aurkitu arte. Gainera, ezin da inprobisatu, neurria eta tonoa finkatuta dardelako». Hala ere, abeslariaren interpretazioa errazagoa da, Norbertok azaltzen duenez, grabazio guztietan gehien nabar-

Zakilaren luzea

Galdera: Ez dakit galdera hau Otxoa edota Gemio andre dotoreei egitekoak diren, halaz ere, zuri igortzen dizut. Esaten denez, zakilaren luze-arak ez du axolarik, zut daudelarik beretsuak baitira. Egia al da hori?

Erantzuna: Ez, zakilaren luzea aldakor askoa da, hala pertsona beraren baitan, nola pertsona batengandik beste batengana. Bataz beste, 14etatik 16,5erainoko (zentimetrotan jakina) bitarte horretan dabilta zut daudelarik, 11 zentimetroko zirkunferentzia izanik. Inkestaren arabera, zirkunferentzia hau eta ez luzea da emakumei axola zaienena. Munduko zakilarik txikiena luze 1,27 zentimetrokoa zen, eta luzeena 35,5ekoa. Azken hau egia dela egiaztatu nahi baduzu, bibliografia irudikatua utz niezazuke. Halako zakilaren jabe direnek nekez lortzen dute altxatze arrunt bat.

Bestalde, esan gabe ez bihoa niri-kontatutako pasadizu bat. Euskaldun pet montañako talde bat Afrikara joan zen ehiztari. Eta halako batean hango ugaldean bainatzean, haien bizkarretik majo egin zuten irri beltzek, Europako eta Afrikako zakilen artean zegoen aldea ez baitzen ttipi.

Galdera: Nik sei titiburu ditut. Normala al da hori?

Erantzuna: Behin baino gehiagotan esan behar izan dut normal izenondoa oso gutxi gora-beheratsua dela. Jakina normala dela. Hemen normalak ez direnak ilargitarak dira, eta horiek, nik dakidala, ez dute kontsulta honen beharrik.

Gu ugaztunak gara, eradoski egiten baitugu. Horregatik daukagu titiburu zerranda bat, murriztu eta mugatu egiten dena sortu baino lehen. Zenbait kasutan ez da hola gertatzen. Oso arrunta da hirugarren titiburua.

Galdera: Gure bizilaguna aukeratzean, bada irizpiderik? Zeintzu dira?

Erantzuna: Badirudi sei urte bete baino lehen gure geroko joerak eta gustuak taxutu,



Badirudi sei urte baino lehen gure geroko joerak eta gustuak taxutu, eta horietara gehien hurbiltzen direnak gogoko ditugula.

eta horietara gehien hurbiltzen direnak gogoko ditugula. Egia esan, guztiz beselakoak izanik ere, beti dira elkarren antzak. Dakizunez, honelako ikerketarako iparrameriketarrak prest daude generalean, eta haien arabera belarriak eta hatsa hartzeko erritmoak dira elkarren antzik usuena. Egia esateko, elkarren antzak erosotasun sentsaziorik sor dezake.

Galdera: Julio Iglesias naiz, esan nahi dut, hori nire goitizena dela. Ni baino hogeita hamar urte (ez dakit nola idazten diren zenbakiak euskaraz) zaharragoa den emakume batekin nabil. Sexualki ez dugu inongo arazorik. Gerora begira hori oztupo bat izan al liteke?

Erantzuna: Orain modatan jarri da nor bere adineko ba-



'Grandville-n iruditan euskal erretratuak' liburuko ilustrazioa.

Adinez nagusi den emakume eta gizon gazteren arteko mataza-konbinaketa oso aberatsa eta komenigarria izaten da. Hori bai, gero gerokoak.

tekin esposatzea edo uztartzea. Ez da kultura guzietan dagoen aztura, ezta gurean ere, aldi joanari so eginez gero.

Adinez nagusi den emakume eta gizon gazteren arteko mataza-konbinaketa oso aberatsa eta komenigarria izaten da, iritziak iritzi. Ez naiz txantxetan ari. Hori bai, gerokoak gero.

Klasiko bitxi arront klasiko

Joxemiel Bidador

Laborarien liburuaz (II)

Bizente Aizpuru ordiziarraren nekazaritza eta gazteen garbitasunari buruzko liburuak



Jadanik hogeigarren mende honetan, Bizente Aizpuru Agirrezabal izeneko Ordiziako semeak gai hauekin zer ikusirik duen beste liburu bat eskeintzen digu: *Nekazaritza, euskalerriko nekazarientzat*. 40 ikasgaiez hornitu 214 horrialdetako idazki hau Donostian agertu zen 1930. urtean Leizaolaren moldiztegiaren. Era guztietako aholkuak ematen ditu. Lurra nola landu, landareak, arbolak, basoak nola zaindu, behiak, oiloak, zerriak, erleak etabar nola hazi... Natur zientzietako ezagupen zientifiko ugari dago barreiatutako liburuan zehar. Hala ere, euskara traketsa du, egileak berak aitortu zuen moduan. Horregatik apika, 1000 aleetako tirada horrek etzuen arrakasta haundirik lortu. Egilearen gora beherak ere ezin interesgarriagoak. 1889. urtean sortu, Suizako Friburgon ingeniari-za agrikola ikasketak bete egin. Ordizian baserri lanetan aritu. 1928. an Iruña ondoko Ibargoitiko Elora joaten da bere osaba baten lurretako produzioa antolatzen. Azkenik, 1939. an bueltatzen da Andoainara. Elokoko egoitzak markatu zuen zeharo. Karlista eta nazionalisten arteko zubia izan nahi zuen, Irujorentzat aunitz boto lortuz lehen itsu itsuan karlista zen Elo bezalako herri batean, eskuineko blokearen atzean geratzen den bigarren partidua izanik 1933. urtean. Errepublikanoa, foruzalea, federalista eta guziz agnostikoa izateak ezin hobe deskribatzen zuen bere burua. Beraz guziz pertsona interesgarria.

Honekin batera, eta pertsona honen oroimena hona ekarri ezker, ezin esan gabe utzi idazle berak egindako haren bigarren lana, hau da *Gazteak garbik izan, garbitasun bidez zeoz nagusituko zerate pake ta zorientasun bilatz*. Hauxe bera Elo herrian argitaratu eman zuen 1930. urtean nahiz Beasaingo Zuzunegi moldiztegiaren inprimatu 1000 aleetako edizio bakarra. Lana bi hizkuntzatan dator, eta bi zatien artean 200 orrialde inguru lortzen ditu. Esan erderazkoa hasieran dakarrela, eta honen gainean horrela mintzo zaigu autorea: *'Orain, bada euskera atala; bidez lenbizi joan bear zuna, zergatik nere oldozkaikak ere jakina, euskeraz bururatuak diralako ta ate sarrera baten bi jaun eztabaitzen diran erara, ele euskera apalak adai besteri aurretasuna utzi diyo. Uarrarazi bear dizuet gañera, ez direla bi atal erder-euskera abek, ziara berdiñak; esan nai det orrekin ez direla itzak bihurtuak, ez baizik gogaikak bakar t'aska lasai'*.

Liburuaren helburua euskal gaztediak ezkondu bitartean erabateko sexu garbitasuna nola gorde azaltzea da. Liburuaren kapitulu guzietan honetaz dihardute, batek kenduta, bosgarrenak alegia, determinismoari eta, fatalismoari buruz ideia bitxiak plazaratzen dituena. Aizpuru orduko apez ertsiak baino puritanoagoa daterkigu bere tesiak defendatzen, baina nimitzkeria bat baino gehiagok ezberdintzen du horiengandik, esate baterako, darabilen arrazoi-tzeko estiloak, darakusten sexu arazoz tapakirik gabe aritzeko ausardiak, eta, finean, arazo psikofisiologiko nahiz sexologikoei eskeini arretak.

Beraz, ez da harriztekoa, horrela lan estua zein ertsia izan arren, liburuaren kondena izatea. Gasteizko gotzaina zen Mateo Mujikak laski galerazi zuen eta Aizpuren lana, determinismoa, eboluzionismoa, aitortpena ukatzea edo Jesukristoren eite jinkotiarra bera ere zalantzan jartzeagatik: *'prohibimos gravemente y bajo pecado mortal a nuestros diocesanos leer, comprar, retener, vender, traducir o editar (...) mandamos a los que posean algun ejemplar del mismo que inmediatamente lo destruyan'*.

Bukatzean, hona hemen pasarte interesgarri bat, Aizpuren puritanismo bitxia erakusgarri: *'Umea motilla, geien geienean itxu itxun eduki nai izaten da umezketako edo abenda ugaritze gai onetan eta bere umekeriñ galderan bat egitea ausartzen bada bere gurasoeri, onek arrituta ipui edo sorgiñ itxurako erantzunakin utziko du, baña azten dijoala, kalen azaltzen danakin edo lagun azixegoak esaten erakusten diyobenakin, laxter kontu ematen da, eskutuko gauz arrigarrien bat dagoala gai orretan eta nola geienetan motil zital azixego oen erakusketa da oker ta lizunkorra, ara horrela gaztetxo orren gogai izakera okertzen dan; ta beretzako, gai ontako gauz guzi abek ta eskontze bera ere, izango direla bekatu txarkerik bezala ta aurrera ondo gordeko da ezer ere galdetsez, ez aita, ama t'etxeko iñoeri ere gai onen gain; bakarrik bere lengo lagun azixego zital oek izango ditu irakasle edo maixuk ta au izaten da geienetan motiko orren galtze bidea tximukeri (euskaraz garbik ez du itzik alako zikinkerientzat) gaxalkor orreta emanik'*. Honezker, ez ote litzateke komenigarriago izango puritano bezala deskribatzea baino, neo-estoi- kotzat jotzea gure Ordiziako idazlea? Baliteke gero. Baliteke.




■ Iruñeko Hiria Xake Torneo irekiko 5. ihardunaldiko partida, 1995eko urtarrilaren 5ean jokatu.

Iñaki Rebole (Nafarroa), 2.020 ELOkoa-Mario Gomez (Bizkaia), 2.465 ELOkoa.

1.Zf3,c5; 2.e4,Zc6; 3.Ab5,g6; 4.0-0,Ag7; 5.c3, Zf6; 6.Ge1,0-0; 7.d4,d5; 8.d5, Dd5; 9.c5, Dc5; 10.De2,a6; 11.aa4,b5; 12.Ab3,Ab7; 13.Ae3,Dh5; 14.bZ-d2,Za5; 15.Ad4,Zb3; 16.b3,fG-e8; 17.De5, De5; 18.Ze5,Zd5; 19.Ze4,Zf4; 20.Zc5. Zuhurragoa zen 'f3' jokaldia. Erregea posizio ezerezoan geratuko da. 20...Ag2; 21.Za6,Ah3; 22.Ga3,aG-c8; 23.Ga5,f6; 24.Zf3,Ag4. Zaldiak ez du euskarrik,

eta horrek arazoak sortzen dizkie txuriei. 'Zd2' jokaldia mingarria da, baina hori eragozteko konponbideak ez du ezer konponduko. Ikus Koadroa. 25.Ge3,Ah6; 26.Ef1,e5. Txuriek 'Aa7' egiten baltute, 27...Zh3; 28.Gd3,e4. Ez da, beraz, irtenbidea.

27.Ae5,e5; 28.Ze5,Ah3 xa; 29.Eg1,Af5; 30.Ge1,cG-d8; 31.Gb5,Zd3; 32.Zd3,Ad3; 33.Ge8 xa,Ge8; 34.Gb8,Gb8; 35.Zb8,Ac1; 36.c4,Ab2; 37.c5,Ef7; 38.Zd7,Ee7; 39.Zb6,Ab5; 40.Eg2,Ad4; 41.b4,Ee6; 42.Zc8,Ac3; 43.Za7,Aa4; 44.c6,Ed6; 45.b5,Ec7. Zaldia harrapatuta dago. Txuriek amore eman zuten.



ALBERTO BARANDIARAN / IRUNEA

Joan den martxoaren 23an egin zuen aurkezpen publikoa Zurkaitz elkarteak Elizondoko Arizkunenea Kultur Etxean, kultur arloan izan den jaiotza berri honen zergatiak azaltzeko: Baztan-Bidasoako kultur taldeen arteko koordinazioa eta euskal kulturari lotuta dauden zeregin guztiak indartzea. Berez zabal askoa den eremuak, horrela, bateratuago izango ditu indarrak hemendik aitzinera, kulturari dagokionez behintzat.

Sei taldek onartu dute oraingoz ahaleginak batzeko proposamena: Bortzirietako Ttipi-Ttapa, Baztango Xorroxin eta Baztandarren Biltzarra elkarteak, Malerrekako Langarra eta Behinpein taldeak eta IKA. Beste talde batzuei ere egin zaie proposamena baina oraindik ez da haien atxikimendua lortu, nahiz eta taldea osatzen duten sei taldeetako partaideen ustetan koordinazioa beharrezkoa den oso, logikaz bakarrik ez bada ere. «Eremu txikia da gurea populazioaren arabera» azaldu du Juainas Paulek, Langarra taldekoak, «baina zabala geografikoki. Beraz, anitzetan jende berak topo egiten dugu alor ezberdinetan, bakar batzuen bizkarran gelditzen delako lan gehiena. Ikusi genuen, beraz, beharrezkoa zela koordinazioa osatzea denon artean». Helburuak ere berdintsuak zituzten sei elkarteek, denak euskararen ingurukoak baitira. «Helburuak nahitanahiez eskatzen zuen elkarlana eta ez bakoitza bere aldeetik ibiltzea».

Sei taldeek biltzeko nahia agertu baino lehen Bertizko Partzuergo Turistikoak proposamena egin zion, Baztan-Bidasoako kultur eta kirol elkarteak eratzeko. Orduan denen interesak koordinatzeko alor garrantzitsua bazela iritzi zion Partzuergoak, eta bere estatutuaren zehazturik zegoen erakunde horren beharra eta figura: ohorezko bazkide izango zen, batzordeetan parte hartzeko bai baina botoa emateko eskubiderik gabe. Hori izan zen lehen ekimena. Hutsen geratu zen, baina, asmoa, kultur talde batzuek garbi esan zutelako ez zitzaizela interesatzen, definizioa «ahula» zela eta.

Baina beharra antzematen zen taldeen artean, eta horietako batzuetako partaideek lan alor finko bat eraiki beharra nabarmendu zuten, eta bazela une egokia ezinbesteko elkargune hori finkatzeko. Aipatu taldeen arteko

Talde batzuek ez dute oraindik euren partaidetza erabaki, Bertizko Partzuergoarekin izan litekeen harremana dela eta.



Zurkaitza elkarteko partaideak, aurkezpen egunean.

TTIPI-TTAPA

Zurkaitza Kultur Elkarte berria eratu da Baztan-Bidasoa alderdian, bertako kultur taldeen arteko koordinazioa eragiteko. Ttipi-Ttapa, Xorroxin Irratia, IKA, Langarra eta Behinpein taldeak eta Baztandarren Biltzarra elkarteak bildu dira bertan, nahiz eta denendako zabalik izan eta partaide gehiago espero. «Eremu zabala eta jende gutti». Koordinazioa ezinbestekoa, beraz.

Zugarramurditik Beraraino

harremanak duela sei hilabete hasi ziren, eta denbora honetan helburuak eta koordinazio mota zehaztu dituzte. Teoriarik elkarrearen barruan tokia duten talde batzuek ez dute oraindik euren partaidetza erabaki, hain zuzen ere Partzuergoarekin aurrerantzean eduki litekeen harremana dela eta. «Berako Gure Txokoak edota Lesakako Arrano Elkarteak, esate baterako, esan zuten ez zutela garbi ikusten Partzuergoarena, eta pentsatu behar zutela. Gure ustetan, ordea, hor dagoen erakunde bat izanik, aprobetxa daiteke gure helburuak bultzatzeko». Orain, hain zuzen ere, zuzenketa bat sartu dute Partzuergoaren estatutuen barruan, ohorezkoa izan beharrean bazkide oso izan adin. Horrek ahalbidetuko luke bozketetan parte hartzea, eta bazkide guztiek dituzten eskubide berberak izatea. Proposamena batzar nagusian bozkatu beharra dago, eta horren zain dago elkarteak.

Sortu zenetik eztabaiden sorburua izan da Partzuergoa, eta oraindik bada turismoak eta kulturak deus ikustekorik ez dutela dioenik, baina, elkartearen helburua Partzuergoa ez dela azpimarratuta ere, eztabaidarako gune polita izan daitekeela dio Juainasek. «Partzuergoaren errealitatearen aurrean bi aukera daude: aparte gelditzea, bereiz, edo parte hartzea. Guk gure baldintzak paratu nahi ditugu, eta eztabaidatu. Izan baitaiteke foro



Baztan-Bidasoa inguruan ekintza kultural bateratuak egiteko sortu da Zurkaitza.

dezente bat».

Elkartearen helburu nagusia eskaintza kulturalen arteko koordinazioa izanik, talde bakoitzak bere autonomia gordeko du, eta lehen urratsak oraindik txikiak izan dira. Hasteko talde guztiaren programazioa bildu eta koordinatzeko aukerak aztertu ziren. Ondoren, alderdi osoko ikuspegiarekin planteatu daitezkeen ekitaldi zehatzak aukeratu dira, eta Eguberrietan lantzeko asmoa dute, gai bat hartu eta zona osoan garatzeko.

Asmoa inguruan dagoen kultur gosearen ondorio dela dio Juainasek, sumatzen da-eta gauzak egiteko gogoak. «Dugun akats nabarmenena da oso sakabana-tuta bizi garela, eta deus lortzeko kilometro pila egin behar ditugula». Lanean daudenak gutxi direla onartuta ere, proportzionalki mugimendua badagoela iritzi dio Langarra taldekoak. «Bada interesa jendearengan, baina kostata egiten dira gauzak, aipatu arrazoiengatik. Egiten da, hala ere».

Elkarrearen helburu nagusia eskaintza kulturalen arteko koordinazioa izanik, talde bakoitzak bere autonomiari eutsiko dio.

«'Aerobica' egun ez da kaltegarria»

EDURNE ELIZONDO / IRUÑA

Yolanda Badiola 25 urteko gazte ondarrutarrak irabazi zuen martxoaren 26an Nafarroako Unibertsitateak antolatu zuen iraupeneko *aerobic* txapelketa. Kirolari trebe eta aparta, jazz dantzaren munduan aspaldi murgildu zen Yolanda Badiola eta *aerobic*-aren sekretu guztiak ere ikasten hasi bezain laster ezagutu zituen Ondarroakoak. Moda baino gehiago den kirol honi buruz mintzatu da Yolanda

kasle bakoitzak bere estilo propioa garatzen du, bakoitzak bere erara prestatzen ditu *aerobic* taulak. Hala ere, funtsean, beroketa egin behar da lehendabizi beti eta poliki-poliki abiadura eta erritmoa areagotu aerobikora ailegatu arte, hau da, bihotza pultsazio kopuru batera ailegatzen den arte. Une horretara ailegatuta, poliki-poliki berriro, baina erabat gelditu gabe, erritmoa jaitsi egiten da, gorputza eta giharreak lasaitzeko. Ez da, ordea, bat-batean gelditu be-

baina, betiere, luzarora bizkarrean edo beste atalen batean min egingo diguten taulak baztertuz. Ipar Amerikatik dator *aerobic*-a, eta bertan proba eta ikerketa asko egin da makinekin.

EGUNKARIA.— *Aerobic*-aren barruan hainbat mota daudela aipatu duzu. Zeintzuk dira?

BADIOLA.— Bai. Alde batetik, eragin txikiko *aerobic*-a dago eta, bestetik, eragin handikoa. Eragin txikikoan, hanka eta orkatilek ez dute eragin handiko *aerobic*-ean bezainbesteko

ez nuen ezer egin eta gero berriro hasi nintzen. Hala ere, jazz dantza akademia gehienetan dantza gutxi egiten da. Ikastaro ugari egin nituen eta jazz dantza ikasteaz gain, *aerobic*-ean ere hasi nintzen.

EGUNKARIA.— *Aerobic* ikasi ahal izateko zentro nahikoa ba al dago Iruñean?

BADIOLA.— Egia erran, ez, baina ez da Iruñean dagoen arazoa bakarrik, oro har, zentro gutxi dago. Ni Euskal Herri osoan eta baita kanpoan ere egiten diren ikastaro guzietara joaten naiz, ahal dudan neurrian behintzat. Euskal Herrian, batez ere Bilbo, Donostian eta Errenterian ere badago halako ikasketak egiteko au-



Yolanda Badiola, *aerobic* egiten.

JOXE LACALLE

Badiola EGUNKARIArekin.

EGUNKARIA.— Nafarroako Unibertsitateak antolatutako iraupeneko *aerobic* txapelketa irabazi berri duzu.

YOLANDA BADIOLA.— Bai. Txapelketa hori bazegoela jakin eta parte hartzea erabaki nuen. Baina ez da soilik iraupen txapelketa, arintasuna, estiloa, koordinazioa eta indarra ere hartzen dira kontuan, oso garrantzitsua baita elementu horien gütien arteko oreka.

EGUNKARIA.— *Aerobic*-ak erabiltzen duen teknika, zehazki, zein da?

BADIOLA.— *Aerobic*-aren barruan mota asko dago eta ira-

har, bihotzeko taupadak poliki-poliki gutxitu behar dira.

EGUNKARIA.— Gorputza etengabe mugitzen ari dela kontuan hartuz, badira *aerobic*-a osasunarentzat kaltegarria ere izan daitekeela erran dutenak. Zer deritzozu horri?

BADIOLA.— Egia da hori. Gaur egun, hala ere, ikerketa anitz egin dira kirol honen inguruan eta osasunarentzat izan dezakeen kalte hori gero eta murriztagoa da. Egun, Jane Fondak bere bideo kasetetan egiten zituen *aerobic* taulak erabat zaharkituta daude eta egungo oso ezberdina da. Gorputzaren hainbat atal lantzen ditugu

lan egin behar eta lurraren eta euren arteko distantzia txikiagoa da. Eragin handiko *aerobic*-ean salto handiago eta gehiago eman behar dira eta, beraz, hanka eta orkatilek gehiago sufritzen dute.

EGUNKARIA.— Iraupeneko *aerobic* txapelketa irabazi berri duzu, baina nola hasi zinen kirol hau egiten?

BADIOLA.— Ondarroatik Bilbora joan nintzen bizitzera gurasoen lana zela eta, eta bertan hasi nintzen jazz dantza ikasten. Ondoren, Iruñera etorri nintzen 18 urterekin nekazatza-peritu ikasketak egitera. Ikasten ari nintzen bitartean,

Yolanda Badiola

AEROBIC IRAKASLEA



«Jane Fondak bere bideo-kasetetan egiten zituen *aerobic* taulak erabat zaharkituta daude, eta egungo *aerobic*-a oso ezberdina da».

SOSLATA

Kirola beharrezkoa

Yolanda Badiolak hil honen 16an 26 urte beteko ditu. Hemezortzi urterekin ikastera etorri zenetik Iruñean bizi da, eta gustora gainera. «Bilbon ere bizi izan naiz baina ez zait batere gustatzen» esan du Badiolak. Jazz dantza ikasi zuen lehendabizi eta ondoren *aerobic*-aren munduan murgildu zen. Egun irakaslea da Iruñeko Udalak antolatzen dituen Sormen Tailerretan. *Aerobic*-ean aritzeaz gain, korrika egitea ere gustuko du Yolanda Badiolak eta gimnasioan ere noizbehinka aritzen da. Kirolari trebe eta aparta, kirola maite eta beharrezkoa duela aitortu du Ondarroakoak. Eta *aerobic*-ak libre uzten dion denboran euskaltegira joaten da, aurten EGA ateratzeko asmoa baitu.

NOSKI JATOR

© zaldi ERROA

MENDIAN GORA ②: N. Jatorrek Oteizaren "hutsa" kontzeptua ezabutzen du.

